



# Etxalarko Ibilbideak



**“INFERNUKO ERROTA” SL NA-13**

**I.I.D.E.:** .

**Luz.: 10,300 km | Des.: 200 m | Zail.: 1 | Den.: 3 h.**

*Joan-etorriko ibilbidea, Etxalarko eta Baztango mugan kokaturiko errota bitxi bat, erreka gainean eraikia, bisitatuz.*

## **IBILBIDEA**

- 0,000 km: **ORIZKI GAINA** (390 m), Etxalartik Zugarramurdirako bideko 3. km-an, eskuinean aparkaleku moduko zabalgunea, babesik gabea. Bertatik 3 bide: eskuinetik, Orizkiko baserrietako bidea; aurretik, Bordaberri etxera (landetxea). Ezkerretik jaitsi, erreka alderantz eta Baltanen Borda baserrira doan pista zabal eta erosotik. Basoan sartuko gara.
- 0,925 km: Bidea bitan banatzen da, zabortegirako bidean. Zuzen segi, lurrezko pista nagusitik.
- 1,050 km: Altxata erreka (315 m) zeharkatu eta maldan gora; 50 m aurrerago, bidea bitan banatzen denean, pista bera segi, ezkerretik. Pagadi ospel batean sartuko gara, tarteka gartzainondo zaharren motzondo ikusgarriak ageri direlarik.
- 1,850 km: Bihurgune itxia ezkerretara eta jaitsiera. Infernuko erreka ikuspegia; 300 m aurrerago, iturria.
- 3,510 km: **BALTANEN BORDA BASERRIA** (edo Baztanen Borda, 380 m), basoaren erdian, bere belagi, iraleku eta ardi borda ageri direna; sarreran kisulabe baten aztarna badu ere. Pista bukatu eta baserriaren ezkerretik igoko gara, bide zabaletik.
- 3,725 km: Bidea bitan banatzen da. Ezkerretik, iralekura doan bide maldatsua; eskuineko bidetik segi, bazterrean pago zaharrak dituena. Tarte zelaia, pagadia eta pinadia tartekatuz.
- 4,715 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuinetik segi, maldan behera. Errotara iritsi baino lehen, ezkerretik segi (eskuineko bidea errota konpontzeko erabili zen).
- 5,070 km: Infernuko erreka zokoa (350 m) eta Etxebertzeko Borda baserri-jatetxetik datorren bidea. Eskuinetara jo.
- 5,150 km: **INFERNUKO ERROTA**, presa txiki bat eta harrizko eskailera batzuk jaitsi eta gero (OHARRA: ingurua ospela eta irrastakorra da, beraz erne ibili hurbiltzerakoan). Errota berriki moldatua izan da, lehengo tekniken arabera, eta tarteka arto jotzen dute. Ibilbidea hemen bukatu eta berriz Orizki gainera itzuliko gara (AUKERA: bada erreka zokotik SL NA-13 segitu eta 2,5 km-ra Etxebertzeko Bordara ailegatzea).
- 10,300 km: **ORIZKI GAINA** (390 m), aparkalekua. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

